 <b>IBARRAKO UDALA</b> GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA	<b>Espedientea:</b> / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 <b>2021WDIZ0005</b>
	<b>Sarrera-erregistroa:</b> / Registro de entrada:	001020 - 2021/04/06
	<b>Dekretu-zk.:</b> / Nº Decreto:	445 / 2021
	<b>Titularra:</b> / Titular:	IBARRAKO UDALA
	<b>Ordezkarria:</b> / Representante:	
	<b>Gaia:</b> / Asunto:	Nafarroa Oinez: 2021eko dirulaguntza

### 445/2021 ALKATE DEKRETUA

Nafarroa Oinez 2021 ekintza burutzeko, LIZARRA IKASTOLA elkarteak, Ibarra udalari dirulaguntza eskaera luzatu zion 2021eko apirilaren 6an egindako eskaeran (erregistro zenbakia 001020).

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Nafarroan euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen du ekintza horrek.

Ibarra udala bat dator Nafarroa Oinez ekintzarekin lortu nahi diren helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra udalak 2020ko otsailaren 18an onartutako 2020-2023 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Nafarroa Oinez.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Nafarroan ez dagoelako euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen duen beste festarik, eta ondorioz, bera bakarra dela.

Kontuan harturik, Euskara arloko diru-laguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.01 diru-partida .

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Kontuan harturik, 2020an ez zela Nafarroa Oinez egin Covid-19 birusa dela eta, eta ondorioz, Ibarra udalak 162/2020 alkate dekretu bidez emandako 1.000 €ko dirulaguntza ez zela ordaindu eta 2021erako gordetzea erabaki zuela.

Alkatetza honek apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Tokiko Erregimeneko Oinarri Arautzaileak, 21.1. artikuluan, Tokiko Erregimenaren arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateratua onesten duenak, 24. artikuluan eta Tokiko Erakundearen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onesten duenak, 41. artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

### EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Diruz laguntzea euskararen egoera normalizatu eta euskal irakaskuntza sustatzea bilatzen duen Nafarroa Oinez 2020 proiektua.

**BIGARRENA.-** Aipatu diru-laguntza 1.000 €koa izango da eta Nafarroa Oinez 2021 egitasmoa antolatzen duen LIZARRA IKASTOLA Elkarteari (F31098718) ordainduko zaio ES36 3035 0052 6605 2006 0601 kontu korrontean


**HIRUGARRENA.-** Aipatu kopurua 2021ko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.01 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako diru-laguntza honi aurre egiteko.

**LAUGARRENA.-** Ordaintzea Ibarra udalak 162/2020 alkate dekretuan onartutako 1.000 euroko dirulaguntza, goian zehazten den kontu korronte eta elkarteari.

**BOSGARRENA.-** Aipatu diru-laguntza helburu bererako beste diru-laguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administratziotik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

**SEIGARRENA.-** Diru-laguntza ordainketa bakarrean egingo da

**ZAZPIGARRENA.-** Egindako diru-ekarpena justifikatzeko, Nafarroa Oinez 2020 ekimenaren antolatzaileek honakoa aurkeztu beharko dute 2021ko urtarrilaren 29a baino lehen:

	<b>Espedientea:</b> / Expediente:	Oinarrizko diru-laguntza izendunak 1000 <b>2021WDIZ0005</b>
	<b>Sarrera-erregistroa:</b> / Registro de entrada:	001020 - 2021/04/06
	<b>Dekretu-zk.:</b> / N° Decreto:	445 / 2021
	<b>Titularra:</b> / Titular:	IBARRAKO UDALA
	<b>Ordezkarria:</b> / Representante:	
	<b>Gaia:</b> / Asunto:	Nafarroa Oinez: 2021eko dirulaguntza

a. Jardueraren memoria, diru-laguntza jaso duen ekintzarena.

b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

**ZORTZIGARRENA.-** Diru-laguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

**BEDERATZIGARRENA.-** Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

**HAMARGARRENA.-** Aipatutako akordioaren berri udalbatzari emango zaio egiten duen lehen bilkuran.

Ibarra, 2021ko uztailaren 13a

Igor Zapirain Lizarribar

Alkatea



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU0f8d41b6-c733-4858-8c43-4807e2e631fe**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021WDIZ0005-Dekretua/Decreto (IBARRAKO UDALA)